


Firmado digitalmente por  
el Defensor del Pueblo de  
Navarra (CIF: S3100014D).

Fecha:

2020.08.24

11:39:34 +01'00'



Defensor del Pueblo  
de Navarra  
Nafarroako Arartekoa

**Expediente Q20/458**

Pamplona/Iruña, 24 de agosto de 2020

**Señor don Javier Remírez Apesteguía**

Vicepresidente Primero y Consejero de Presidencia,  
Igualdad, Función Pública e Interior  
Avda. de Carlos III, 2  
31002 Pamplona/Iruña

Kontseilari jaun hori:

1. 2020ko uztailaren 15ean, Joseba Otano Villanueva jaunak idazki bat aurkeztu zion erakunde honi, *Administrazioan Euskaraz* taldearen izenean. Haren bidez, kexa bat luzatzen zion Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari. Kexa, hain zuzen ere, honako gai honi buruzkoa zen: euskarak atzerriko hizkuntzek baino balorazio baxuagoa jasotzen duela Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko zenbait deialditan.

Kexan, zehazki, postu hauetarako 2020an deitutako lekualdatze lehiaketak aipatzen ziren: Liburutegiko Arduraduna, Osasun Kudeaketako Teknikaria, Enpresa Zientzietan Diplomaduna, Ogasuneko Kudeatzaile eta Ikertzaile Laguntzailea eta Ogasuneko Teknikaria.

Kexan azaldu zuenez, prozedura horietan puntuak ematen dira atzerriko zenbait hizkuntza jakitegatik, hala nola ingelesa,

Señor Consejero:

1. El 15 de julio de 2020 esta institución recibió un escrito del señor don Joseba Otano Villanueva, en representación de *Administrazioan Euskaraz Taldea*, mediante el que formulaba una queja frente al Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, por la menor valoración del euskera que la de idiomas extranjeros en varias convocatorias de provisión de puestos de trabajo al servicio de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus organismos autónomos.

En concreto, se hacía referencia en la queja a los concursos de traslado convocados en 2020 de los puestos de Encargado de Biblioteca, Técnico de Gestión Sanitaria, Diplomado en Ciencias Empresariales, Gestor e Investigador Auxiliar de Hacienda y Técnico de Hacienda.

En dichos procedimientos, según se exponía, se puntuaba el conocimiento de idiomas extranjeros tales como

Emilio Arrieta, 12 • 31002 Pamplona~Iruña

Tfno.: 948 20 35 71 • Fax: 948 20 35 49

CE:info@defensornavarra.com • www.defensornavarra.com

frantsesa eta alemana. Aldiz, Euskararen Foru Legean finkatutako eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, ez da punturik ematen euskara jakiteagatik.

Kexarekin batera, honako eskaera hau egin zuen: ez dadila puntu gehiago eman atzerriko hizkuntzak jakiteagatik, euskara jakiteagatik baino.

2. Jarraian, erakunde honek Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari igorri zion kexa, eta aurkeztutako gaiari buruzko informazioa emateko eskatu zion.

Igorritako txostenean, honako hau adierazi zuten:

1.- Kexaren sustatzaileak adierazi du ez dagoela ados Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako lanpostu batzuen lekualdatze lehiaketan deialdiekin, deialdi horietan "atzerriko hizkuntzek puntuazio handiagoa jaso dutelako euskarak baino, eremu ez-euskaldunean eta eremu mistoan".

2.- Hasteko, esan nahi dugu, (...) jaunari Funtzio Publikoko Zuzendariaren bi ofizioen bidez jakinarazi zitzaion eran (2020ko ekainaren 16koa bat, eta 18koa, bestea), eta hemen berriz azalduko dugun eran, kexan aipatzen diren lekualdatze lehiaketak indarreko legediaren arabera egin direla, eta, bereziki, euskararen balioespenari dagokionez.

3.- Esparru horretan, abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua hartu behar da oinarri, Lehendakaritza eta

el inglés, el francés y el alemán. Sin embargo, por lo que respecta a las zonas mixta y no vascófona contempladas en la Ley Foral del Euskera, no se otorga puntuación por el conocimiento de este lengua.

Se solicitaba que no se valore el conocimiento de lenguas extranjeras más que el euskera.

2. Seguidamente, esta institución se dirigió al Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, solicitando que informara sobre la cuestión suscitada.

En el informe recibido, se señala lo siguiente:

"1º.- El promotor de la queja manifiesta su disconformidad con varias convocatorias de concurso de traslados de diversos puestos de trabajo al servicio de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus organismos autónomos, debido a que en dichas convocatorias "se puntúan más los idiomas extranjeros que el euskera, tanto en la zona no vascófona como en la zona mixta".

2º.- En primer lugar, se ha de indicar que, tal y como se informó al Sr. (...), mediante sendos oficios de la Directora General de Función Pública de fechas 16 y 18 de junio de 2020, y como se volverá a exponer a continuación, las convocatorias de traslado que son objeto de la presente queja, se han efectuado conforme a la legalidad vigente, en especial, en lo que se refiere a la valoración del euskera.

Barne kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko deialdietan aplikatuko diren merezimendu baremoak ezartzen dituena. Lege horrek, I. Eranskinean, lekualdatze lehiaketetan erabili beharreko merezimendu baremoak xedatzen ditu.

Hori horrela, Foru Agindu horretan xedatutakoari jarraikiz, prozedura horietan 46 puntu ematen ahalko dira gehienez, honako kontzeptu hauetan banatuta: emandako zerbitzu edo aitortutako antzintasunagatik, 30 puntu; prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketagatik, 10 puntu; erkidegoko hizkuntzak jakiteagatik (ingelesa, frantsesa eta alemana), 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Horri guztiari, euskara jakiteagatik ematen den balorazio ehunekoa gehitu behar zaio, eta gaur egun 103/2017 Foru Dekretuak arautzen du hori (103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan).

4.- Aipatutako 103/2017 Foru Dekretu horrek 26. artikulutik 40.era bitartekoetan arautzen du zein lanpostutan den nahitaezkoa euskara jakitea, eta zer balorazio ematen zaion euskara jakiteari lanpostu horiek betetzerakoan. Hain zuzen ere, puntuazioen ehuneko jakin batzuk finkatzen ditu, lehen

3º.- A este respecto, hay que partir de lo dispuesto en la Orden Foral 130/1998, de 12 de agosto, del Consejero de Presidencia e Interior, por la que se establecen los baremos de méritos que se aplicarán en las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus organismos autónomos, en cuyo Anexo I se establece el baremo de méritos a aplicar en los concursos de traslado.

Así, la máxima puntuación otorgable establecida en la citada Orden Foral asciende a un total de 46 puntos distribuidos en los siguientes conceptos: servicios prestados o antigüedad reconocida, 30 puntos; formación, docencia e investigación, 10 puntos; e idiomas comunitarios (inglés, francés y alemán), 2 puntos por cada uno de ellos.

A todo ello hay que añadir el correspondiente porcentaje de valoración por el conocimiento de euskera y que actualmente se encuentra regulado en el Decreto Foral 103/2017, de 15 de noviembre, por el que se regula el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes.

4º.- El citado Decreto Foral 103/2017, regula en sus artículos 26 a 40 el conocimiento preceptivo y la valoración del euskera en el ingreso y provisión de los puestos de trabajo, estableciendo distintos porcentajes de puntuación a añadir

aipatutako 46 puntu horiei gehitzen zaizkienak, eta baldintza desberdinak finkatzen ditu eremu euskaldunerako, mistorako eta ez-euskaldunerako.

Hori horrela, eremu euskaldunean, 27.1 artikuluari jarraikiz, Eremu euskaldunean dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unitate organikoetako lanpostuetarako, betiere ele bikotzat jo ez badira, hau da, euskara jakitea derrigorrezkoa ez bada, euskara jakiteagatik emango den gehienezko puntuazioa %10ekoa izanen da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, hau da, 4,6 puntu gehienez. Hala eta guztiz ere, artikulua horren 2. paragrafoak xedatzen duenez, "eremu euskaldunean dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unitate organikoetako zenbait lanpostuk herritarrekin duten arreta- edo tratumaila kontuan hartuta", ehuneko hori "%20koa izanen da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez. Lanpostu horien zerrenda onetsiko da hizkuntza politikaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez".

Bestalde, eremu mistorako araudia 103/2017 Foru Dekretuaren 31. artikuluan dago jasota, eta haren 1. paragrafoak, ele bikotzat jo ez diren lanpostuetarako, %6ko puntuazio gehigarria finkatu zuen euskara jakiteagatik, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez;

a los 46 puntos antes mencionados, distinguiendo según se trate de la zona vascofona, de la zona mixta y de la zona no vascofona.

De esta forma en lo que respecta a la zona vascofona, y de acuerdo con lo establecido en su artículo 27.1, en los puestos de las unidades orgánicas de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra radicadas en la misma no determinados como bilingües, o lo que es lo mismo, cuyo conocimiento no sea preceptivo, la puntuación máxima asignada "deberá suponer el 10% en relación con la puntuación asignada al resto del baremo de méritos", es decir, un máximo de hasta 4,6 puntos. No obstante, sigue el citado artículo señalando en su número 2 siguiente que "en función del grado de atención o trato con la ciudadanía que tengan determinados puestos de trabajo de las unidades orgánicas de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra radicadas en la zona vascofona", el citado porcentaje "deberá suponer el 20% en relación con la puntuación asignada al resto del baremo de méritos. La relación de dichos puestos se aprobará mediante orden foral de la persona que ostente la titularidad del departamento competente en materia de política lingüística".

Por su parte, la regulación de la zona mixta venía contemplada en el artículo 31 del Decreto Foral 103/2017, en cuyo número 1 se estableció para los puestos de trabajo no determinados como

hau da, 2,76 puntu gehienez. 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz, zenbait lanpostutan, herritarrekin duten arreta- edo tratu-maila kontuan hartuta, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren alde zuzentzeko justifikazio-txostena izanik, haien baloraziorako esleitutako ehunekoa %12 bitartekoa izaten ahalko da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.

Eremu ez-euskaldunerako, 35. artikulua xedatutakoarekin bat, euskara jakiteagatik %6ko puntuazio gehigarria ematen ahalko da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez; hau da, 2,76 puntu gehienez. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren justifikazio txostena beharko da aurretik.

5.- Edonola ere, kontuan hartu behar dira Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2019ko irailaren 27an emandako epaiak (216, 217 eta 218/2019 epaiak, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako 528/2017, 42/2018 eta 497/2017 administrazioko auzi-errekurtsoetan emanak). Epai horiei jarraikiz, balio gabetu egin ziren, besteak beste, lehen aipatutako 31. eta 35. artikulua, hurrenez hurren eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unitate organikoetako lanpostuak betetzean euskara jakiteagatik emango den puntuazioari buruzkoak.

Epai horiek, aipatutako aginduak balio gabetu zituztenak, irmo bihurtu

bilingües, una puntuación adicional por conocimiento de euskera del "6% en relación con la puntuación asignada al resto del baremo de méritos", es decir, hasta 2,76 puntos, que en función del grado de atención o trato con la ciudadanía (según su número 2 siguiente) "y previo informe justificativo de Euskarabidea- Instituto Navarro del Euskera (...) podrá suponer hasta el 12% en relación con la puntuación asignada al resto del baremo de méritos".

En lo que respecta a la zona no vascofona el artículo 35 determinó que el euskera "podrá suponer hasta el 6% en relación con la puntuación asignada al resto de baremo de méritos, previo informe justificativo de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera", esto eran, 2,76 puntos.

5º.- Ahora bien, se ha de tener en cuenta que con fecha 27 de septiembre de 2019, la Sala de lo Contencioso- Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra dictó las sentencias números 216, 217 y 218/2019, en los recursos contencioso-administrativos números 528/2017, 42/2018 y 497/2017 interpuestos contra el Decreto Foral 103/2017, de 15 de noviembre, anulando entre otros, los artículos 31 y 35 antes citados, referidos a la valoración del euskera en el ingreso y provisión de los puestos de trabajo al servicio de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, en las zonas mixta y no vascofona, respectivamente.

ziren, eta, beraz, ondorio orokorrak izan zituzten Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean (237. zk., 2019ko abenduaren 2koa). Hori horrela, data horrez geroztik, agindu horiek ez daude indarrean.

Horri guztiari gehitu behar zaio, Konstituzioaren 118. artikuluari jarraikiz, herritar eta agintari publiko guztiak bete behar dituztela epaileen eta epaitegien epai eta gainerako ebazpen irmoak. Horregatik, gaur egun oraindik ez denez onetsi eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzko beste araurik, ezin diogu zure eskaerari erantzun.

3. Jasota gelditu den eran, honako arrazoi honegatik aurkeztu da kexa: Foru Komunitateko Administrazioa zenbait lanpostu betetzeko deialdietan (merezimendu lehiaketan bidezko lekualdaketak), Euskararen Foru Legean finkatutako eremu mistoan eta ez-euskaldunean, ez dela baloratu euskara jakitea, eta atzerriko hizkuntzak jakitea, berriz, bai.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari iruditzen zaio aipatutako deialdi horiek bat datozela indarreko legediarekin, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuko zenbait arau, eremu mistoan eta ez-euskaldunean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa lanpostuak betetzean euskara baloratzeari buruzkoak hain zuzen ere, indargabetuta gelditu zirelako Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren zenbait epairen bidez. Gainera, departamentuak dio, orduz

Las mencionadas sentencias, que declararon la nulidad de los preceptos citados, devinieron firmes alcanzando por tanto efectos generales tras su publicación en el Boletín Oficial de Navarra número 237, de 2 de diciembre de 2019, no estando en consecuencia vigentes los citados artículos desde esa fecha.

A lo anterior resta añadir que el artículo 118 de la Constitución establece la obligación de todos, ciudadanos y poderes públicos, de cumplir las sentencias y demás resoluciones firmes de los Jueces y Tribunales. Es por ello que, dado que al día de la fecha no se ha aprobado otra norma que regule la valoración del euskera como mérito en las zonas mixta y no vascofona de Navarra, no es posible atender la solicitud.”

3. Como ha quedado reflejado, la queja se presenta por el hecho de que, en una serie de convocatorias de provisión de puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Foral (traslados mediante concursos de méritos), en lo que respecta a las zonas mixta y no vascofona contempladas en la Ley Foral del Euskera, no se valora el conocimiento de esta lengua, en tanto que sí se otorga puntuación al conocimiento de idiomas extranjeros.

El Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, considera que las convocatorias referidas se acomodan a la legalidad y que, dado que los preceptos del Decreto Foral

geroztik ez denez beste araurik onetsi hori arautzeko, ezin zaiola erantzun kexan egiten den eskaerari.

4. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua xedatzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskara ere ofiziala izanen dela Nafarroako eremu euskaldunetan. Arau horretan xedatutakoari jarraikiz, foru lege bat eman beharko da, eremu horiek finkatzeko, euskararen erabilera ofiziala arautzeko, eta, Estatuko legedi orokorraren baitan, euskararen irakaskuntza arautzeko.

Agindu horrekin lotuta, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak, 2. artikuluan xedatzen du gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla. Halaber, xedatzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskara ere ofiziala dela Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta Euskarari buruzko Foru Legean xedatutako baldintzetan. Legezko aitorten horrek dakar, beraz, Nafarroak bereziko bi hizkuntza izatea, bata Nafarroa osoan ofiziala dena –gaztelania–, eta bestea koofiziala dena zati batean –euskara–.

Euskararen Foru Legean jasotako araudi osoa legezko aitorten horren arabera da, eta Foru Legearen xede nagusiak dira herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan,

103/2017, de 15 de noviembre, que contemplaban la valoración del euskera en el acceso a puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra en las zonas mixta y vascófona fueron anulados mediante sentencias del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, y que no se ha aprobado otra norma que regule la valoración del euskera en dichas zonas, no cabe atender la solicitud que se formula en la queja.

4. El artículo 9 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra dispone que el castellano es la lengua oficial de Navarra y que el vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra. Según se establece en dicho precepto, una ley foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua.

En relación con dicho precepto, la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, declara, en su artículo 2, que el castellano y el euskera son lenguas propias de Navarra. Asimismo, que el castellano es la lengua oficial de Navarra y que el euskera lo es también en los términos previstos en la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra y en la citada Ley Foral del Euskera. De esta declaración legal se deriva, pues, la existencia de dos lenguas propias de Navarra, una de ellas oficial en toda Navarra -el

euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz.

Euskararen estatus hori eta helburu horiek oinarri hartuta (horiek izan behar baitute ardatz araua interpretatzerakoan), legeak, kasu honi dagokionez, zenbait xedapen jaso ditu, Nafarroan funtzio publikora sartzeari buruzkoak. Zehazki, 15. eta 17. artikuluetan jasotakoak, gai horrek lotura zuzena baitu herritarrek Nafarroako berezko bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko duten eskubidea bermatzearekin. Hori horrela, 15. artikulua, eremu euskaldunari buruzkoak, xedatzen du Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek gaikuntza progresiboa sustatuko dutela, eremu euskalduneari zerbitzua ematen duten langileak progresiboki euskararen erabileran gaitu daitezela, eta administrazio bakoitzak, berari dagozkion eskumenen esparruan, zehaztuko duela zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, merezimendu kualifikatutzat hartuko dela besteren artean. 17. artikulua, bestalde, eremu mistoari buruzkoak, xedatzen du herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko, Administrazio publikoek honako hauek egiten ahalko dituztela: a) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztea zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea; b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskara jakitea

castellano- y la otra parcialmente cooficial -el euskera-.

A esta consideración legal responde el conjunto de la regulación contenida en la Ley Foral del Euskera, cuyos objetivos esenciales son los de amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskera, proteger la recuperación y el desarrollo de esta lengua, señalando las medidas de fomento de uso, y garantizar tal uso y la enseñanza con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto.

A partir de este status del euskera y de esos objetivos, que a modo de principio rector, han de presidir las interpretaciones que se hagan de la norma, la ley, en lo que específicamente interesa al caso, establece algunas disposiciones relativas al acceso a la función pública en Navarra, en concreto las previstas en los artículos 15 y 17, por la relación que esta materia guarda con la garantía del derecho de los ciudadanos al uso de cualquiera de las dos lenguas propias de Navarra. Así, el artículo 15, relativo a la zona vascofona, dispone que las Administraciones públicas y las empresas de carácter público promoverán la progresiva capacitación en el uso del euskera del personal que preste servicio en la zona vascofona, y que, en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del euskera, y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros. Por su



merezimendu moduan baloratzea.

5. Kontuan hartuta aipatutako lege xedapenak, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak kexaren xede diren deialdietan, eremu mistoan eta ez-euskaldunean, euskara jakitea ez baloratzeko arrazoi gisa jotzen dituen argudioak (eremu mistoan eta ez-euskaldunean Foru Komunitateko Administrazio lanpostuak betetzean euskara baloratzeari buruzko zenbait arau baliogabetu izana, eta gaur arte gai hori arautzeko beste xedapenik ez onetsi izana), eta aipatutako xedapen horiek baliogabetzea ekarri zuten arrazoiak (Justizia Auzitegi Nagusiak ondorioztatu zuen arautze hori, haren irismena zela eta, neurritz gainera zela eta ez zegoela behar bezala arrazoituta), erakunde honi egokia iruditu zaio iradokizun bat egitea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio lanpostuak betetzean euskararen balorazioa xedatuko duen arau bat onets dadin, eta arau horrek bermatu dezan euskara, Nafarroako berezko hizkuntza den heinean, ez dadila baloratu atzerriko hizkuntzak baino gutxiago, atzerriko hizkuntza horiek oro har meretzimendu gisa baloratzen direnean, lanpostuaren berezko eskakizunekin loturarik izan gabe.

Azken gai horri dagokionez, Nafarroako Kontseiluaren 2020ko otsailaren 24ko Irizpenak, eremu ez-euskaldunean euskara eskatzeari edo meretzimendu gisa baloratzeari buruzkoak, honako hau xedatzen du:

*Eremu ez-euskaldunean euskara*

parte, el artículo 17, referente a la zona mixta, dispone que, para garantizar el derecho de los ciudadanos al uso tanto del castellano como del euskera, las Administraciones públicas podrán: a) especificar en la oferta pública de empleo de cada año las plazas para acceder a las cuales sea preceptivo el conocimiento del euskera; b) valorar como mérito el conocimiento del euskera en las convocatorias para el acceso a las demás plazas.

5. A la vista de las citadas previsiones legales, de los motivos que aduce el Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior como causa de la no valoración del euskera, en lo que respecta a las zonas mixta y no vascofona, en las convocatorias objeto de queja (anulación de determinados preceptos reglamentarios, relativos a la valoración del euskera en puestos de la Administración de la Comunidad Foral en las zonas mixta y no vascofona, y no aprobación hasta la fecha de una nueva norma que la regule), y de las razones que llevaron a la anulación de los referidos preceptos (se vino a concluir por el Tribunal Superior de Justicia que la regulación, por su alcance, incurrió en desproporción y falta de motivación), la institución ve pertinente formular una sugerencia, a fin que se impulse la aprobación de una norma que regule la valoración del euskera en el acceso a puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y que garantice que el euskera, en cuanto lengua

baloratzeko, hortaz, epaia betetze aldera, hark finkatzen dituen jarraibideak bete beharko dira. Bistakoa denez, baita dagokion egintza administratiboaren edukia bera ere. Azken alderdi hori argitzen dugu, gertatzen ahal delako, egoera batzuetan, gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat baloratzea, frantsesa edo ingelesa adibidez, eta, kasu horietan, ez dugulako ikusten zergatik ezin izanen litzatekeen euskara bera ere baloratu, Nafarroako berezko hizkuntza izanik, eta herritar guztiek hura ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea izanik, EFLren 2. artikuluan xedatzen den eran. Gainera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bere 590/2004 Epaian, maiatzaren 20koan, gogorarazi zuen hori, xedatu baitzuen Europako beste hizkuntza bakar bat ere ez dagoela egoera horretan, eta ezin direla alderaketa unitate heterogeneoak konparatu, legearen ikuspegitik desberdina den hori bateratu nahian. Horixe azpimarratzen dute, baita ere, auzitegi beraren ekainaren 3ko 633/2004 Epaiak eta uztailaren 30eko 812/2004 Epaiak.

6. Hori horrela, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 34.1 artikulua ematen dizkion eskumenak baliatuz, Nafarroako Arartekoaren erakundeari egokia iruditu zaio honako hau:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari proposatzea, eremu mistoan eta ez-euskalduneari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lanpostu batzuk betetzeko deialdietan euskara

propia de Navarra, no sea valorado menos que los idiomas extranjeros cuando estos se valoren como un mérito de forma general y no derivada del puesto de trabajo.

En relación con esto último, en el Dictamen del 24 de febrero de 2020, del Consejo de Navarra, sobre la exigencia o valoración del conocimiento de euskera como mérito en la zona no vascofona, se señala:

“Para la valoración del euskera en la zona no vascofona, en consecuencia, habrá que estar, para cumplir con la sentencia, a las pautas que ofrece la misma. Obviamente, también, al propio contenido de la actuación administrativa de que se trate. Decimos esto último, porque puede haber supuestos en que la valoración del conocimiento de una lengua distinta del castellano pueda ser objeto de valoración, en cuyo caso, no se alcanza a ver motivo por el cual pueda ser valorado, por ejemplo, el conocimiento de la lengua francesa o inglesa, y no del euskera que, además, es una lengua propia de Navarra y todos los ciudadanos tienen derecho a conocerla y usarla, tal y como dispone el artículo 2 de la LFE y se encarga de recordar el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en su Sentencia 590/2004, de 20 de mayo, al precisar, además, que ninguna de las lenguas europeas se encuentra en esa posición y que no se pueden equiparar unidades de comparación heterogéneas, pretendiendo uniformar lo que es

baloratzen ez delako, eta, aldiz, atzerriko zenbait hizkuntza baloratzen direla-eta, aurkeztutako kexarekin lotuta, sustatu dezala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanpostuak betetzeko prozesuetan euskararen balorazioa arautuko duen arau bat onestea, arau horren bidez bermatzeko euskara, Nafarroako berezko hizkuntza izanik, ez dela baloratuko atzerriko hizkuntzak baino gutxiago, horiek merezimendu orokor gisa baloratzen direnean, lanpostuarekin lotura berezirik izan gabe.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoaren, 34.2 artikuluekin bat, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak bi hilabeteko epea du gehienez, aginduzkoa den eran, ebazpen hau onesten duen ala ez adierazteko, eta, hala badagokio, baita hura betearazteko neurriak ere.

Lege horretan xedatutakoari jarraikiz, ebazpena ez bada onesten, Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaion 2020ko txostenean sartzen ahalko da kasua, eta berariaz aipatuko da posible zenean aldeko jarrera hartu ez zuen Administrazioaren izena.

Zuen erantzunaren zain, adeitasunez,

diferente en su concepción legislativa. En ello insisten, también las Sentencias 633/2004, de 3 de junio, y 812/2004, de 30 de julio, del mismo Tribunal”.

6. En consecuencia, y de conformidad con las facultades que le atribuye el artículo 34.1 de la Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, la institución del Defensor del Pueblo de Navarra ha estimado conveniente:

*Sugerir al Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, en relación con una queja presentada frente a varias convocatorias de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra en las que no se valora el conocimiento del euskera en las zonas mixta y no vascófona, en tanto que sí puntúa el conocimiento de idiomas extranjeros, que impulse la aprobación de una norma que regule la valoración del euskera en el acceso a puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y que garantice que el euskera, en cuanto lengua propia de Navarra, no sea valorado menos que los idiomas extranjeros cuando estos se valoren como un mérito de forma general y no derivada del puesto de trabajo.*



De conformidad con el artículo 34.2 de la Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra, procede que el Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, informe, como es preceptivo, en el plazo máximo de

dos meses, si acepta esta resolución, y, en su caso, las medidas adoptadas para su cumplimiento.

De acuerdo con lo establecido en dicho precepto legal, la no aceptación de la resolución podrá determinar la inclusión del caso en el Informe anual correspondiente al año 2020 que se exponga al Parlamento de Navarra con mención expresa de la Administración que no haya adoptado una actitud favorable cuando se considere que era posible.

A la espera de su respuesta, le saluda atentamente,

El Defensor del Pueblo de Navarra  
Nafarroako Ararteko

Francisco Javier Enériz Olaechoa